

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BATZARRA		

Bileraren datuak:

Eguna: 2017-06-08 Lekua: Santa Klara Jauregia. Ordua: 16:30-18:00

Bertaratuak:

Bilgune Feminista: Lur Moragues
Eskuz-Esku: Isabel Pérez
Gizatiar: Carmen Gaztañaga
Mujeres con Voz: Luciana Davies
Roda: Clara Lorenzo Quevedo
EH Bildu: Arantza Gutierrez Paz
Ciudadanos-Herriarrak: Carlos Escalera Lana
EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas
GUK: Paula Amieva Clemente
ELA: Elvira Lemona Díaz
Berritzegune: Ana Sofia Gutierrez
Kontseiluburua: Keltse Eiguren Alberdi
Idazkaria: Idoia Eizmendi Aldasoro

Ez dira etorri:

Udal Talde Sozialista
Talde Popularra

Gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea
- LGBTI eskubideen aldeko eguna
- Emakumeentzako Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako jardunaldiaren balorazioa
- Jaietako kanpaina
- Galde-eskeak

Aurreko akta onartzea

Aho batez onartu da aurreko batzarreko akta.

Emakumeen Etxeari buruzko prozesua

Berdintasun zinegotziak puntu hori aurkeztu du. Aztergaien zerrendan aurkeztu ez zen arren, uste du garrantzitsua dela aztertzea. Horrela, jakinarazi du Emakumeen Etxeari buruz egin den prozesuari buruzko azken txostena jendaurrean erakutsiko dela, baina lehenago Kontseiluari

erakutsi nahi ziola. Berdintasun teknikariak dokumentu horren fotokopiak banatu ditu etorri diren pertsonen artean. Zinegotziak azaldu du lehenengo kontaktua dela gai honekin. Interes handia eta iritzi asko sorrarazi ditu. Uste du ez dela prozesu itxia. Beharrezkotzat jotzen bada, berriro helduko zaio gaiari. Gaineratu du ekintza honekin EH Bildurekin aurrekontuetarako egindako akordioa bete dela.

EH Bilduk galdetu du nolako jarraipena emango zaion. Zinegotziak erantzun dio ez dela itxia, esate baterako, kokalekuari dagokionez, gizonen parte hartu behar duten edo ez, eta abar.

EH Bilduk galdetu du benetan jarraipena emango zaion ala kajoi batean sartuta geratuko den. Berdintasun zinegotziak erantzun dio ez dagoela kronogramarik gaiaz.

LGTBI eskubideen aldeko eguna

Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du bi proposamen dauzkagula mahai gainean: transexualitateari buruzko hitzaldia, Crysalliseko Bea Severrekin, eta “O ornitologo” filma, Joao Pedro Rodriguesena, Ciudadanosek proposatua. Gaineratu du areto bat erreserbatu duela hilaren 27rako¹, ez dadin 28an egin behar izan; horrela, nahi duenak udalez kanpoko ekitaldietara joan ahal du.

Berdintasun teknikariak proposatu du oraingoan hitzaldia egitea eta Kultur Etxeari proposatzea filma bere egitarauan sar dezala, bestelako publiko batengana iristeko asmoz. Talde guztiak proposamen honekin ados agertu dira.²

Bilgune Feministak galdetu du zein izango den hitzaldiaren planteamendua. Hainbat jarrera daudenez gaiari buruz, iritzi ezberdinen arteko eztabaidaren formatua eman ahal zaio, edo San Nikolas ikastolaren esperientzia zehatza kontatu eta abar. Berdintasun teknikariak onartu du ez dagoela planteamendurik definituta. Crysallisek dibulgazio-hitzaldi bat emateko eskaintza egin zuen baina ez da gehiagorik zehaztu.

Jabekuntza Eskolako ikasturte amaierako jardunaldiaren balorazioa

Beldurrak Gurekin jai izenburuarekin, egun horretako gaia jaietan indarkeriaren aurka erabili beharreko estrategia feministen analisia izan zen. Berdintasun zinegotziak gogora ekarri du urte honetako jardunaldian, estreinako aldiz, 8 udalek parte hartu dutela, Durangaldekoak eta Arratiakoak eskolen sarean sartuz. Kontseiluko kide batzuek jardunaldian parte hartu zuten, eta beraien balorazioak jaso dira.

¹ Crysallisen hitzaldia azkenean ekainaren 29an egingo da.

² Filma 2018ko urtarrilaren 19an jarriko da.

GUKen ordezkaria estreinako aldiz egon zen eskolako ikasturte amaierako jardunaldi batean. Esan diote Getxoko emakumeen parte hartzea txikiagoa izan dela beste urte batzuetan baino (azken bi urteak izan ezik). Asko gustatu zitzaion mahai-inguruan egotea, baina itzulpenean arazoak izan ziren: bozgorailutik hurbil zegoenez, gehiago entzuten zion hizlariari interpretariari baino. Uste du hori zaintzea garrantzitsua dela. Nolanahi ere, formatuarekin sorpresa hartu zuen; taldeko lan gehiago egitea eta parte hartzeko aukera gehiago izatea espero zuen.

Uste du autobusa mantendu behar izan zela, emakume gutxi egon arren, eta bazkari autogestionatua nola egin behar zen hobeto azaldu behar zela. Berak ez zuen ondo ulertu zer eraman behar zuen. Halere, uste du gero oso ondo antolatu zela. Kontzertua izugarri gustatu zitzaion.

EH Bilduren ordezkariak esan du asistentzia hobetu dela azken bi urteetatik hona, baina eskola gehiago zeudelako. Asko gustatu zitzaion esperientzien partea mahai-inguruan, eta kontzertua ere bai. Uste du eztabaidaren eta kontzertuaren artean denbora gehiegi igaro zela eta, bestalde, pena eman zien bazkaria ez izatea konpartituagoa, beste urte batzuetan egin denez. Oraingoan, bakoitza bere lekuan jarri zen eta zaila izan zen partekatzea. Bestalde, eskertzen du interpretea jartzea eta, azkenean, hizlariari euren hizkuntzan entzun ahal izatea.

Mujeres con Vozen ordezkaria ez zen jardunaldira joan, baina elkarteko beste emakume batzuk bai. Uste du buelta bat eman behar zaiola autobusaren kontuari. Beraiek baldintza horrekin eman zuten izena eta, kendu zenean, batzuek ezin izan zuten joan. Uste du ez dela bakarrik ikuspegi ekonomikotik ikusi behar, emakumeek parte har dezatela nahi baldin badugu. Erantsi du ez zekitela jardunaldia eskolako ikasle ez diren emakumeentzat irekita zegoela; jakinez gero agian busa bete zezaketen. Haren ustez, Getxoko emakumeen parte hartzeak behera egin du bazkaria kendu zenetik.

Bilgune Feminista ez zen joan honako honetan, bere kongresua egin zutelako egun berean, Baionan. Uste du oso positiboa dela euskara beste emakume batzuei hurbiltzea, entzumena lantzea, hitzak ulertzen saiatzea... euskara marjinalizat hartzeari uztea. Beste aukera bat itzulpena talde txikietan autogestionatzea da, baina beti presente egon dadila.

Berdintasun teknikariak atera diren gai batzuei buruzko balorazioa egin du. Metodologiaz esan du guztiz ados dagoela talde txikietan lan egin beharrenekin, are gehiago jabeak eskola bat denean. Baina uste du iritzi ezberdinak daudela teknikei buruz. Itzulpenari dagokionez, lehenbiziko urtea izan da eta akats teknikoak egon dira, batez ere erabili den ekipoaren ondorioz eta esperientzia faltaren ondorioz, baina oso balorazio positiboa egin du urrats horri buruz. Busaren gaiari dagokionez, 13 lagunek bakarrik eskatu zuten, eta berak baloratu zuen gehiegizko gastua zela autobus bat baldintza horietan alokatzea, garraio publikoa egonik edo

autoetan antolatzeko aukera egonik. Nolanahi ere ados dago Mujeres Con Vozek esan duenarekin; halere, hori erabaki politikoa litzateke, eta ez teknikoa. Azkenik, esan du jardunaldia hainbeste udalen artean antolatzeko esperientzia ona baina zaila izan dela, batik bat agendak egokitzeko eta modu arinean komunikatzeko zailtasunengatik.

Jaietako kanpaina

Berdintasun zinegotziak, hasteko eta behin, esan du beste batzuetan talde guztiekin konpartitu ohi dela nola egin jaietako kanpaina, baina honako honetan, berdintasun teknikaria udaletik joango denez, kanpaina erabakita utzi dela, dena prestatuta eduki ahal izateko. Gogorazi du iaz Emakundek Beldur Bariken jaietako kanpaina proposatu zuela. Getxon ez genuen aurrera eramán, beste plan bat aurreikusi genuelako. Beraz, gazteentzako BB gidak argitaratu ziren arren, ez ziren jaietan banatu, baizik eta azaroaren 25eko etxoletan. Urte honetan Beldur Barik kanpainako irudiak erabiltzea erabaki da (eranskinean), 2 m x 1,50 m neurriak dituzten bi euskarri zurrunetan jarriz, udalerriko jai handietako bakoitzean jarriko direnak. Modu berean, 800 kartel argitaratuko dira komertzio eta tabernetarako, eta jai batzordeen artean abesti ez sexisten zerrenda bat banatuko da, Beldur Barik proposatuta. Beste alde batetik, Berdintasun zinegotziak esan du, tamalez, jai parekideen gaia eta pertsona guztiok jaiak gozatu ahal izateko erantzunkidetasunaren gaia kanpoan utzi beharko direla; ezin izango dira landu.

Berdintasun teknikariak esan du jaien aferan inflexio-puntu bat egon behar dela. Haren ustez “Ezeta ezeta da” moduko kanpainek zentzua galdu dute. Gogoeta prozesu bat egin beharko litzateke, emakume-taldeak eta talde feministak eta jai batzordeak inplikatur. Gaineratu du IV. Berdintasun Planean zerbait planteatu dela zentzu horretan, eta jabeak eskolen jardunaldian ere prozesuen garrantzia azpimarratu zela, ohiko protokolo edo kanpainak kopiazez haratago.

Bilgune Feministaren ordezkariak esan du, bi jai batzordetan izan duen esperientziatik abiatuta, ados dagoela lan hori lehenengo batzarretik landu behar izatearekin. Prestakuntza beharrezkoa da, eta kartelak egitea ez da garrantzitsuena, mezu horiek dagoeneko kalean baitaude. Uste du garrantzitsua dela erakustea erakundeek (beraiek diruz laguntzen baitituzte jaiak) gai honen aldeko apustua egitea, ez dela “marizoro batzuen” arazoa bakarrik. Uste du aurrekontu bat egon beharko litzatekeela indarkeria-kasuei nola erantzun edo beste jai eredu bat nola bultzatu lantzeko.

Berdintasun zinegotziak esan du aurrean asmoa dagoela berdintasun eta gazteria zerbitzuak jai batzordeekin batzartzeko, azaroko bileran, gai hau denboraz aztertzeko, IV. Planean azaltzen dena betez horrela. Gogoeta egin beharri buruz gogorazi du kasuren batean batzorderen batek kartel sexistak ere erabili dituela.

Berdintasun teknikariak esan du Basaurin bi berdintasun teknikari daudela praktketan, eta metodologia bat prestatu dutela, besteak beste jai batzordeekin lan egiteko prestakuntza daukana. Getxon ere lantzeko eska genezake.

Bilgune Feministak uste du batzordeetatik irteten diren gogoeta eta tresnak batu beharra dagoela.

GUKek proposatu du txosnei eskatzea kartelak leku ikusgarrietan jar ditzatela.

EH Bilduk azaldu du txosna batzuetan mezu feminista biribilagoak jartzen direla udalak proposatzen dituen kanpainetan baino. Donostiako jaiet buruzko informazioa jakitera eman du. Han emakumeen elkarteek eta udalak akordio bat lortu zuten. Uste du hausnartu behar dela elkarteak eta erakundea nola izan daitezkeen elkarren osagarri.

Bilgune Feministak uste du jai batzordeetan badakitela jaietan badirudiela “denak balio duela”. Besterik da tresnak sortzeko denbora izatea. Baina gogorarazi du mezu feministak presente daudela.

Berdintasun teknikariak planteatu du garrantzitsua dela egiten ari diren gauzak aintzat hartzea. Uste du Romoko eta Portu Zaharreko jaietan presentzia feminista garrantzitsua dela; emakumeen egun bat dago eta mezu feministak oso presente daude, baina presentzia eta gogoeta horiek jai osora hedatzea da kontua.

Bilgune Feministak esan du epe luzerako proposamenak egin beharra dagoela, ez bakarrik jaietarako. Haren iritzian, proposamenak txosnetarako dira bakarrik, eta tabernak kanpoan geratzen dira. Elkarteentzat lan gehiegi da tabernaz taberna joatea beraien inplikazioa eskatzen. Uste du lan hori errazagoa litzatekeela udalarentzat; prestakuntza bat antolatu liteke eta joatera behartu. Horretarako ikusi beharko litzateke nolako tresnak dauden.

GUKek, bestalde, parte hartzen ez duten tabernak zigortzeko aukera proposatu du.

Berdintasun zinegotziak erantzun du prestakuntzarena ez duela ikusten edo, gutxienez, inor behartzearekin ez dagoela ados; erakunde honek ez du horretarako ahalmenik. Zigorrak jartzeko, berriz, alde zuzenetik arau bat existitu behar da, portaera hori arau-haustea dela adierazten duena.

ELAko ordezkariak esan du sarritan tabernariak ez dutela ezer egiten, nahiz eta eraso bat gertatu.

Bilgune Feministak uste du ikusi beharko dela zein mekanismo iristen den hoberen bitarteko instituzionalen bidez, eta zein elkarte bidez.

Berdintasun zinegotzia ados dago elkarrekin lan egin beharrekin, sentsibilizatzeko eta bultzatzeko helburuz. Baina ez dago bestelako mekanismorik. Haren ustez, aurretik sentsibilizatuta dagoena etorri egingo da, eta sentsibilizatuta ez dagoena, aldiz, ez da etorriko. Hurrengo jaietarako ikusi beharko dugu beste sektoreak nola inplikatuko.

Atera beharreko materialekin amaitzeko, berdintasun zinegotziak galdetu du interesgarri ikusten ote duen pegatinak edo txapak egitea. Baietz erabaki da, eta batzordeei eta tabernei banatuko zaizkie.

Galde-eskeak

- EH Bilduk galdetu du Iratxe Fresnedaren dokumentala ekartzeko proposamena egin ote zaion Euskara Zerbitzuari. Berdintasun teknikariak baietz erantzun du, hiru proposamen aurkeztu dituela, besteak beste hori.³

- GUKek galdetu du ekainaren 28an adierazpen instituzionala aurkeztuko ote den. Berdintasun zinegotziak erantzun du ez ohi dela horrelakorik egiten. Ekitaldi bat antolatzen da bakarrik, are gehiago aurten, zerikusia duen gai bati buruzko adierazpena onetsi denean.

Bilgune Feministak galdetu du LGTBI+ bandera udaletxean jarriko ote den. Berdintasun zinegotziak ezetz erantzun du, eta berdintasun teknikariak gaineratu du aurten Areetako moila argizatuko dela, baina Turismo Arloaren ekimena da, ez Berdintasun Arloarena. EH Bilduk uste du horrek zerikusi handiagoa daukala irizpide komertzialekin, Bilbo gay friendly motakoak, eta ez aldarrikapenarekin.

Bilgune Feministak proposatu du puntu morea eta *Bakea behar dugu* pankarta beti egon daitezela udaletxean jarrita.

³ "Irrintziaren oihartzuna", Iratxe Fresnedarena; "Erradikalak gara", clown ikuskizuna eta ipuin kontalaritza Beatriz Elgezabal eta Ane Labakarekin, eta "Musikagintza eta emakumeak", hitzaldi eta kontzertu akustikoa Itxaso Gutierrezekin.



LOGO
MUNICIPIO

